

## Jakinarazpena: Eskaperen emaitzarekin Tokiko Gobernu Batzarraren diktamena

### Erabakiaren datuak:

<b>Eguna</b>	2024/07/29
<b>Organoa</b>	Tokiko Gobernu Batzarra

Tokiko Gobernu Batzarrak, goian aipatzen den egunean, **ondoko hau erabaki du:**

Kulturako, Euskarako eta Turismoko Ordezkaritzak, elkarteen lanaren garrantziaz jabetuta, beren helburuak betetzeko ahaleginean, diru-laguntzak ematea proposatzen du, bere aurrekontu baliabideen arabera eta jarraian zehazten diren datetan Tokiko Gobernu Batzarrak onartu eta argitaratutako araudiarekin bat:

Diru laguntzen deialdia	Oinarriak noiz onartu ziren	Oinarriak GAOn noiz argitaratu ziren
Gau Beltzeko eta Euskararen eguneko egitarauak	2025/01/28	2025/02/12

### JASO DIREN ESKAERAK

Guztira 6 eskaera jaso dira.

### DESBIDERATUAK IZAN DIREN ESKAERAK

Behean aipatutako entitateen dirulaguntza eskaerak beste diru laguntza lerro batetara **desbideratuak** izan dira

Erakundea	IFZ	Proiektua	Nora izan den desbideratua
ILAE Ibaetako Lagunen Auzo Elkartea	G20534756	Euskararen eguneko Ibaetan	Euskara Zerbitzua. Jarduera zehatzak

### ESKABIDEEN BALORAZIOA

Organo instrukziogileak eskaerak aztertu eta gero, balorazioa egiteko xedez sortutako Balorazio Batzordeak txostena egin du eta bertan azaldu dira egindako azterketaren emaitzak

Proiektuen balorazioak eta ondorioak erantsitako txostenean jaso dira.

Horiek horrela, ordezkariak honek honako erabakiak hartzea proposatzen dio Gobernu Batzarrari:

### ERABAKIAK:

1. Behean aipatutako **dirulaguntzak ematea**, deialdiaren oinarriek araututakoaren arabera:

Erakundea	IFZ	Proiektua	Puntuak	Kopurua
Mamur Aisialdi Taldea	G20702049	<b>Amarako euskararen eguna</b>	61	1.050 €
Ibai ikastolako ikasleen guraso elkarte	G20176079	<b>Gau beltza eta euskararen eguna 2025</b>	70	1.500 €
LOIOLAKO HONTZA KULTUR ELKARTEA	G20595146	<b>LOIOLA AUZOKO EUSKARA EGUNEKO EKITALDIAK</b>	59	975 €

**2. Behean aipatutako eskaerak ukatzea**, kasu bakoitzean ematen diren arrazoiengatik, oinarri arautzaileekin bat:

Erakundea	IFZ	Proiektua	Arrazoa
ASOCIACIÓN DE PADRES Y MADRES DE ALUMNOS/AS AB AMARA BERRI LHI ESKOLAKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEA	G20119434	<b>Gau Beltzeko eta Euskararen eguneko egitarauak / Gau Beltzeko eta Euskararen eguneko egitarauak 2025</b>	13. artikulua. Auzoen dirulaguntza eskatu dutenek ezin dute deialdi honetan berriz eskatu
Sarroeta Auzo Elkarte	G20403408	<b>Gau Beltza Martutenen.2025</b>	13. artikulua. Auzoen dirulaguntza eskatu dutenek ezin dute deialdi honetan berriz eskatu.

**3.** 3.525 €-ko **gastua** 2025eko Gastuen Aurrekontu Orokorreko Euskarako programari dagokion 0219.060.481.02.00 kontu-sailaren kontura ordaintzea.

**4.** Onartutako zenbatekoen %70 irizpena onartutakoan **ordaintzeko agintzea**, eta gainerakoa, dirulaguntza justifikatzeko eskatutako dokumentuak aurkeztu eta balioztatzean.

**5.** Euskara Zerbitzuaren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri berezien 15. artikulua betez, deialdi honetan esleitu gabe geratu diren **3.975** euroak, **I atalera gehitzea**, auzoen plan integraletara, hain zuzen ere.

**6.** Erabaki hau **jakinaraztea** udal iragarki-oholean argitaratuta.

**Eta hala jakinarazten da**, jakin dadin eta behar diren ondorioetarako :

1.- Hamabost laneguneko epea izango dela, jakinarazi eta biharamunetik, diru laguntzari uko egiteko. Diru laguntza onartutzat joko da lehen aipaturiko epean berriaz ukorik adierazten ez badute.

2.- Erabaki honek amaiera ematen diola administrazio-bideari eta hortaz honen aurka berrikusteko errekurtsioa harri ahal izango dela Tokiko Gobernu Batzordearen aurrean eta horretarako hilabeteko epea dagoela, edo bestela zuzenean aurkatu daitekeela bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegiaren aurrean.

Esandako epeak jakinarazpen hau Udaletxeko iragarki taulan jarri den hurrengo egunetik hasiko dira 2025eko uztailaren 30ean jarria izanik.

Donostia,

Euskara Zerbitzuaren burua